

Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusteko eta ondoren». Hau da persona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

Un dios salvaje

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Carnage.
URTEA: 2011.
IRAUPENA: 79 min.
HERRIALDEA: Frantzia.
ZUZENDARIA: Roman Polanski.

AKTORE-ZERRENDA: Kate Winslet, Christoph Waltz, Jodie Foster, John C. Reilly.
EKOIZPEN-ETXEA: France 2 Cinema / Versatil Cinema / Constantin Film Produktion / SBS Productions / SPI Poland.

Sinopsia

Yasmina Reza egile frantziarraren izen bereko antzezlaren egokitzapena. New York-en gertatzen da istorioa, bi senar emazte bikote dira protagonistak. Beren semeek parkean izandako borrokaldiari buruz hitz egiteko, hasiera batean, modu zibilizatuan elkartzen dira; baina bilera korapilatu egingo da.

Gaiak

Gatazka, dilema etikoak, itxurakeria

Gatazka. Gazteen eta helduen artean, gatazka desberdinak ikus daitezke eta, aldi berean, pelikulako protagonisten artean nola doazen handitzen gatazka horiek.

Dilema etikoak. Hartzen diren erabakiengatik larriagotzen doan gatazka-egoera bati egin behar diote aurre pelikulako protagonistek.

Itxurakeria. Pelikulan zehar protagonisten jokamolde onen ondorioz ezkututzen den itxurakeria ikus dezakegu.

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderi buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarriketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gudan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

Zenbait galdera...

...pelikula ikusi aurretik

- Gatazkei buruz: Nola saiatzen gara gatazkek konpontzen? Inposatzen, hitz egiten...?
- Dilema etikoei buruz: Zer da dilema bat? Zein paper jokatzen du etikak erabakiak hartzerakoan? Harremanik ba al du koherentziarekin?
- Itxurakeriari buruz: Zer da itxurakeria edo hipokrisia? Diren bezala ez agertzen saiatzen al gara pertsonak? Zergatik?

...pelikula ikusi ondoren

- Pelikularen hasieran, nolakoa da lau protagonisten jarrera arazoa konpontzeko? Zein bilakaera dauka pelikulak aurrera egin ahala? Nolakoa da senar-emazte bikotekide bakoitzaren harremana hasieran? Eta pelikularen amaieran?
- Nola da protagonista bakoitza? Nolako eragina dauka protagonista bakoitzaren nortasunak gazteen artean gertatutakoaren aurrean jokatzeke edo arrazoitzeke eran?
- Zer adierazten du bi gazteen arteko azken irudiak parkean?

Kristina Soaresen laguntzarekin.

Cine para *vivir y convivir*

Un dios salvaje



baketik

943-251005

www.baketik.org

baketik